

Agurra

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Jaun-andreok, arratsalde on!

Beste urte batez, Euskaltzaindiak bat egiten du Euskal Herriko ikastolekin eta bereziki Nafarroa Oinez ekitaldiarekin. Aurten Zizur Txikian gaudе, San Fermin ikastolan. Ez da hau euskararen akademiak San Fermin ikastolari egiten dion lehen bisita eta espero dezagun azkena ere ez izatea. Gaur, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak bilera egin du zuen ikastolan eta zuen guraso, irakasle, ikasle eta langileekin batera lanean jarduteko aukera izan du.

Agurtu ditzadan, beraz, ikastolaren gurasoak, irakasleak, ikasleak eta langileak, zuek osatzen baituzue ikastolaren izana eta presentzia. Zuen lanari esker euskara bizi da hainbaten ezpain eta esamoldeetan. Beraz, zuen lana goraiatzekoa da, eta nola ez, Nafarroako euskalgintzaren alorrean txertatu beharrekoa. Eskerrak, orobat, Pilar Vicente ikastolako zuzendariari eta Paula Casares euskaltzain urgazleari, euren hitzaldi mamitsuengatik.

Kolore & hitz duzue aurtengo leloa. Kolore anitz eta hitz ugari ditu gure hizkuntzak, gure euskarak. Horiek guztiak batzen saiatzen da Euskaltzaindia eta Euskal Herriko herrialde bakoitzean bere lekukotasuna ematen, euskaldun guztiok ikus dezagun gure erakundearen lana zein den.

Hitzak esatekoak dira eta sarritan kantatzekoak ere, musika baita euskaldunontzat maitagarri eta erakargarri. Hartara, nire goresmenak eta zorionak San Fermin ikastolako Abesbatzari eta Zangozako *Nora* Abesbatzari, bi

-biek jakin izan dutelako gure burura ekartzen euskal eta erbesteko doinuen leuntasuna.

Nafarroa Oinez 2012, euskararen jaia eta euskalgintzaren eta euskal kulturaren erakusleihoa, zuen ahaleginei esker.

Izan dadila hau, euskararen onerako eta jarraitu dezagun lanean.